# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2027KO EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEA XEDE DUEN LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

Txosten hau Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailak eskatuta landu da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitutako eskumena baliatuta, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen 20. artikuluak zehaztutakoarekin bat . Testu bategin hori martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartu zuen; aurrerantzean, Berdintasunerako Legea.

Txostenaren helburua da egiaztatzea behar bezala aplikatzen direla bai Berdintasunerako Legearen 20. artikulua, bai, halaber, genero- eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak onartzekoa eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko Erabakia —Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onetsi ziren—, eta, horrekin batera, hobekuntza-proposamenak egitea.

Eskatutako txostenak aztertzen duen lege-aurreproiektuaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko 2027 ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzea da.

Beraz, xedapen arauemaile orokorra da, eta generoaren arabera zer eragin duen ebaluatu behar da, lehenengo jarraibidearen 2.1 apartatuan ezarritakoarekin bat etorriz. Horri begira, generoaren araberako eraginari buruzko txostena eman du arauaren organo sustatzaileak, 1. eranskinean jasotzen diren baldintzetan eta lehenengo jarraibidearen 3. eta 4. apartatuetan aurreikusitakoaren arabera.

Berdintasunerako Legean eta generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideetan aurreikusitako izapide formalak bete direla egiaztatu ondoren, generoaren araberako eraginaren txostena egiteko prozesuari eta edukiari dagokienez, zenbait gogoeta eta proposamen egiten dira.

Aipatutako lege-aurreproiektuaren genero-eraginari buruzko txostenaren edukia baloratzeko premisa gisa, zenbait gogoeta egingo ditugu Europan arlo horretan egindako aurrerapenei buruz, EAEko sektore publikoaren aurrekontu orokorretan genero-ikuspegia

txertatzeko estrategiari buruz, egungo egoerari buruz eta hura egiteko metodologiari buruz, garrantzitsutzat jotzen ditugunak:

Lehenik eta behin, **Europako Parlamentuaren 2025eko azaroaren 25eko Ebazpena aipatu nahi genuke, 2024ko aurrekontuari buruzkoa: Batasunaren aurrekontuan genero-ikuspegia integratzeko metodologiaren aplikazioaren ebaluazioa (2025/2033 (INI)).** Bertan, Europako Parlamentuak zenbait ohar jasotzen ditu, aurrekontu-prozesuan genero-ikuspegia aplikatzeari dagokionez kontuan hartu beharrekotzat jotzen ditugunak. Bertan, ohar batzuk egiten dira, kontuan hartuta, besteak beste, *genero-berdintasuna Batasunaren helburu bat dela, lehen mailako zuzenbidean finkatua, eta Batasunaren politika guztietan funtsezko tokia izan behar duen printzipio bat; genero-ikuspegia txertatzea mundu-mailan aitortutako estrategia bat dela, politika, programa eta neurri guztiak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzean genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzeko, genero-berdintasuna sustatzeko eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko; eta Europako Kontuen Auzitegiak adierazi duela Batasunaren 2014-2020 urte anitzeko finantza-esparruak (UAFE) ez zuela behar bezala kontuan hartu genero-berdintasuna*:

a) Nabarmendu dute Batzordeak metodologia pilotu bat garatu duela 2021-2027 aldirako Urte Anitzeko Finantza Esparruko programa mailan genero-berdintasunarekin lotutako gastuen jarraipena eta neurketa egiteko, aurrekontu-prozesuan genero-ikuspegia hobeto txertatzeko eta politiken diseinuak eta baliabideen esleipenak genero-berdintasunaren helburuak sustatzeko modua indartzeko.
b) Nabarmentzen du Batasuneko aurrekontu-programa guztiek ez dituztela emaitza berdinak generoa lehentasun horizontal gisa txertatzeari dagokionez, eta programa batzuek askoz hobeto funtzionatzen dutela beren politiken diseinuagatik.
c) Ikusten du metodologiaren irismena mugatua dela, ez dituelako behar bezala islatzen programek genero-berdintasunean dituzten bigarren mailako edo zeharkako ondorioak, izan daitezkeen ondorio negatiboak edo politiken ondorioen ebaluazio zehatza egiteko beharrezkoak diren dimentsio intersekzionalak;
d) Deitoratu egiten du metodologiaren *ex post* izaerak politikak diseinatzerakoan *ex ante* fase batean edo finantza-baliabideak bildu eta esleitzerakoan egiturazko



Manuel Iradier, 36 – Tel.: 945 01 67 00 – Fax: 945 01 67 01 – E-mail: emakunde@euskadi.eus 01005 – Vitoria-Gasteiz

eragina izateko gai ez izatea, hori funtsezkoa baita Batasunaren programetan genero-berdintasuna behar bezala txertatzeko;

e) Batasunak genero-ikuspegia txertatzeari buruz duen ikuspegi bikoitza- Batasunaren aurrekontuaren jarraipenaren eta programen oinarri juridikoetan ezarritako helburuen ezarpenaren artean banatzea- esparru erabilgarria dela dio, baina ikuspegi hori zatituta dago eta ez du neurri berean eragiten programa guztietan, eta horrek murriztu egiten du Batasunak genero-berdintasunaren arloan duen ikuspegiaren koherentzia;

f) Horri dagokionez, datuen eskuragarritasuna eta errendimendu-adierazle espezifikoen, neurgarrien, lorgarrien, errealisten eta denboran mugatutakoen (SMART) erabilera bermatzearen garrantzia nabarmentzen du;

g) Azpimarratzen du ezen, Batasunaren aurrekontuan krisi ugarik eta lehentasun politikoen aldaketek eragina dutenez, funtsezkoa dela genero-ikuspegiko aurrekontuak *ex ante* modu proportzionatuan sartzea, programen aurrekontu-zikloaren funtsezko elementu gisa, bai eta lehentasunezko eremu berrietan ere, hala nola lehiakortasunean, defentsan eta prestakuntzan;

h) Batzordeari eskatzen dio genero-ikuspegiko aurrekontuen ikuspegi osoa eta globala eta Batasunaren aurrekonturako metodologia espezifiko eta zehatza gara ditzala, hurrengo programazio-aldiaren hasieratik guztiz operatiboa izan dadila, eta potentzial eraldatzailea izan dezala, aurrekontu-ziklo osoan eragiteko duen gaitasunagatik eta ebazpen honetan adierazitako arazoak konpontzeagatik, Batasuneko funtsen finantza-kudeaketa egokia bermatzeko;

Ildo horretan, joan den martxoaren 5ean, Europako Batzordeak **Genero Berdintasunerako Estrategia berria aurkeztu zuen 2026-2030 aldirako.** Estrategiak genero-berdintasuna bizitzaren alderdi guztietan integratzen du, *online* eta *off line*, hezkuntza eta osasunetik hasi eta lanera eta bizitza publikora arte, eta mehatxu modernoei heltzen die, hala nola ziberindarkeriari eta adimen artifizialarekin lotutako arriskuei, bereziki emakumeei eragiten dietenei. Urte Anitzeko Finantza Esparrua (UAFE) 2028-2034 (erakunde arteko negoziazioen zain) gauzatzeak funtsezko aukera eskaintzen du genero-ikuspegia EBren aurrekontuan txertatzea indartzeko. Errendimenduari buruzko erregelamendu-proposamenak genero-berdintasuna printzipio horizontal bihurtzen du EBren finantzaketa-programa gehienetarako, bereziki nazioko eta eskualdeko lankidetza-planetarako. Errendimenduari buruzko Erregelamenduak, halaber, genero-berdintasuna



Manuel Iradier, 36 – Tel.: 945 01 67 00 – Fax: 945 01 67 01 – E-mail: emakunde@euskadi.eus 01005 – Vitoria-Gasteiz

aurrekontu osoan sartzeko esparru koherente bat ezartzen du, genero-berdintasunaren alde EBk egiten duen gastua arakatzeko metodologia baten bidez eta errendimendu-adierazleak generoaren arabera banakatuta. 2026aren amaierarako arakatze-metodologiari buruzko orientabide teknikoak aurkezteko asmoa du Batzordeak.

Emakunderi bidalitako genero-eraginari buruzko txostenean aipatzen den bezala, eta Europako Parlamentuaren Ebazpenak zein 2026-2030 aldirako Genero Berdintasunerako Estrategiak erakusten diguten bezala, politika publikoak eraldatzeko, aldaketa sakonek epe luzerako denbora-horizonte bat behar dute genero-ikuspegiarekin egindako aurrekontu orokorrak diseinatzea lortzeko. Premisa horrekin, 2025ko ekainean, Gobernu Kontseiluak EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTU OROKORRETAN GENERO- IKUSPEGIA TXERTATZEKO ESTRATEGIA onartu zuen.

Horretarako, onartu zenetik, honako ekintza hauek egin dira:

- Diagnostiko parte-hartzailea. Hainbat erakunde-eremutako 79 pertsonaren inplikazioa izan zuen, eta aukera eman zuen genero-ikuspegiko aurrekontuak finkatzeko indarguneak, hobetzeko aukerak eta erronkak identifikatzeko. Ondorio nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dira:
    - Prestakuntza espezializatua eta aholkularitza teknikoa indartzeko beharra.
    - Aurrekontu-tresna erabilgarriak egokitzea eta hobetzea.
    - Sailen arteko koordinazioa eta lidergo instituzionala indartzea.
    - Aurrekontuen plangintzan eta dokumentazioan genero-adierazleak eta sexuaren arabera bereizitako estatistika-informazioa sartzea.
    - Prozedurak eta egutegiak aurrekontu-programazioko benetako zikloetara egokitzea.

  Halaber, diagnostikoak agerian utzi zuen genero-ikuspegia benetan txertatzeko, antolaketan eta erakundeak eraldatzeko prozesuetan aurrera egin behar dela, ikuspegi hori sistematikoki txertatu ahal izateko aurrekontu-zikloaren fase guztietan.
- EAEko sektore publikoko kargu publikodunei zuzendutako **sentsibilizazio-jardunaldia**. 432 pertsonak parte hartu zuten; horietatik % 58 emakumeak izan ziren, eta genero-ikuspegiko aurrekontuei buruzko ezagutza instituzionala indartzen lagundu zuen.



Manuel Iradier, 36 – Tel.: 945 01 67 00 – Fax: 945 01 67 01 – E-mail: emakunde@euskadi.eus 01005 – Vitoria-Gasteiz

- **Aurrekontu Orokorren esparruan berdintasun-politikak definitzeko eta kuantifikatzeko lanak**, haien identifikazioa, jarraipena eta ebaluazioa hobetzeko.

Estrategiak ez du konpromiso ekonomiko zuzenik jasotzen, baina bertan aitortzen da haren garapena bermatzeko baliabide nahikoak eman behar direla. Horregatik, Ogasun eta Finantza Sailak 2027rako aurrekontuetan 137.500 euro bideratzea aurreikusten du, honela banatuta:

- ✓ 92.500 euro, Estrategiaren ibilbide-orrian aurreikusitako jarduketak garatzeko.
- ✓ 45.000 euro, genero-ikuspegia duten aurrekontuen arloko ikerketa-beketarako.

Era berean, 2028ko ekitaldirako 135.000 euroko konpromiso-kreditu bat aurreikusten da. Estrategia egiturazko aurrerapena da aurrekontu publiko feminista baterantz, aurrekontua benetako ekitate-tresna bihurtzen duena. Generoaren araberako eraginari buruzko txostenean txertatzearen helburua da Eusko Legebiltzarrak ekimen horren garrantzia, eusten dion konpromiso instituzionala eta politika publikoen kalitate demokratikoa, justizia soziala eta eraginkortasuna hobetzeko dituen inplikazioak ezagutzea.

Prozesuari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak, eta administrazio-prozedura arruntaren barruan, sailek, erakunde autonomoek, partzuergoek, Lanbidek, EITB taldeak, Osakidetzak, SPRI, GCR, URA eta IHOBE erakundeek txosten bat bidali diote Ogasun eta Finantza Sailari, hurrengo ekitaldirako jarduera-lehentasunak azalduz. Eta, aurreko urteetan bezala, politika publikoen jarraipen-prozesu beharrezkoaren barruan, "Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzen" esparruan eta "Soldata-arrakalaren" aurka egin nahi dituzten jarduerak laburbiltzeko eskatu zaie. Gainera, sail, erakunde autonomo eta partzuergo guztiek beren aurrekontu-programak genero-ikuspegitik aztertzeko P-Gen formularioak bete dituzte.

Genero-eraginari buruzko txostenari dagokionez azterketa sakona goian zehaztu den aurreikusitako prozesuan egingo da, baina orain edukiaren analisia egingo da:

EAEko diagnostiko sozioekonomikoari dagokionez, txostenean adierazten denez:



Manuel Iradier, 36 – Tel.: 945 01 67 00 – Fax: 945 01 67 01 – E-mail: emakunde@euskadi.eus 01005 – Vitoria-Gasteiz

• Desberdintasunen kausak identifikatzea ezinbestekoa da, politika publikoak erantzun koordinatuak, integralak eta eraginkorrak emateko, ondorio negatiboak neutralizatzeko eta berdintasunaren bidean aurrera egiteko, inor atzean utzi gabe. Kausak identifikatzea funtsezko urratsa bada ere, garrantzitsua da genero-eraginaren azterketa sistematikoa ikuspegi intersekzionaletik egitea.

• 2025ean, Euskal AEko genero-berdintasunaren indizea 100etik 66,0 puntukoa da, hau da, 2020an baino 2 puntu handiagoa. Europar Batasunean, batez besteko puntuazioa 63,4 puntukoa da; beraz, Euskal AErena Europako batezbestekoa baino 2,6 puntu handiagoa da, eta bederatzigarren postuan dago EBko 27 herrialdeen artean. Genero-berdintasuna ez da intentsitate berarekin agertzen eremu guztietan. **Osasunaren** dimentsioak mailarik altuena du (86,3 puntu), 2020rekiko hobera egin du (85,3), eta haren bi azpidimentsioek, osasun-egoerak (87,7) eta portaera osasungarriak (84,9), balio altuak eta hurbilak erakusten dituzte. **Diruaren** dimentsioa 71,7 puntukoa da, bigarren emaitzarik onena, baina desberdintasun nabarmenekin: emakumeek gizonen urteko diru-sarreren % 76 inguru jasotzen dute, eta emakumeen pentsioak gizonezkoen pentsioaren % 70 dira.

Atal horretan, zenbait esparrutan (osasuna, hezkuntza, ordaindutako lana, zaintza-lana, aniztasuna eta bizikidetza, emakumeen aurkako indarkeria, pobrezia eta gizarte-bazterketa, eta erabakiak hartzeko parte-hartzea) dauden genero-arrakala nagusiak laburbiltzen dira. Atal horretan emandako emaitzak abiapuntua dira aurrekontu-programek EAEko emakumeen eta gizonen bizi-baldintzetan duten eragina ezagutzeko, bai eta egiten ari diren jarduketen bidez, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren fenomeno estruktural eta unibertsal hori zuzentzeko zer neurritan eragin daitekeen jakiteko ere.

**Gastuen azterketari dagokionez**:

Finantzaketa-iturriei dagokienez, finantzaketa autonomikoko sistematik datozen baliabideez eta Europar Batasuneko hainbat tresnatatik datozenez gain –hala nola, Eskualde Garapeneko Europako Funtsetik (EGEF), Europako Gizarte Funtsetik (EGIF+), Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (LGENF), Europako Itsas,



Manuel Iradier, 36 – Tel.: 945 01 67 00 – Fax: 945 01 67 01 – E-mail: emakunde@euskadi.eus 01005 – Vitoria-Gasteiz

Arrantza eta Akuikultura Funtsetik (EIAAF), Next Generation, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismotik (SEM)–, elementu berritzaile gisa sartu da 2027ko ekitaldian genero-berdintasuneko bonuak jaulkitzea. Finantza-tresna hori genero-arrakalak murrizten eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna sustatzen laguntzen duten jardueretarako baliabideak mobilizatzera bideratuta dago. Aurreikusitako jaulkipena 75 milioi euro ingurukoa da, bi eta hiru urte bitarteko epemugekin.

EAEko Administrazio Orokorraren eta haren mendeko erakundeen zerbitzura dauden langileei dagokienez, Administrazio Orokorraren zerbitzura dauden emakumeen eta gizonen egoeraren diagnostikoa eguneratu da, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailak garatutako jarduera izanik.

Era berean, txostenak ohartarazten du plantillaren azterketak genero-desberdintasun esanguratsuak erakusten dituela EAEko sektore publikoko kolektiboen artean, azken hamarkadetan aurrerapenak lortu diren arren. Desberdintasun horiek, batez ere, honako hauen bidez adierazten dira: segregazio horizontaleko eta bertikaleko fenomenoak, behin-behinekotasunak eta kontziliazio-neurriek eragin handiagoa izatea emakumeen artean, eta emakumeen eta gizonen presentzia desberdina izatea lanbide-eremu eta erantzukizun-maila jakin batzuetan. Soldata-arrakalek beheranzko joera dute, eta, oro har, plantillen osaerarekin, lanbide-kategoria jakin batzuetan emakumeen eta gizonen kontzentrazioarekin eta zuzendaritza- eta buruzagitza-lanpostuen okupazio desberdinarekin lotutako egiturazko faktoreei erantzuten diete funtsean. Era berean, lanaldi-murrizketei, eszedentziei eta beste kontziliazio-neurri batzuei buruzko datuek agerian uzten dute zaintza-erantzukizunak oraindik ere emakumeen esku daudela, eta hori dela, hain zuzen, ibilbide profesionalean eta ordainsari-ibilbidean ikusitako desberdintasunak azaltzen dituen faktore nagusietako bat.

Azkenik, emakumeen eta gizonen berdintasunerako funtzioak dituzten teknikariei dagokienez, bi gai garrantzitsu azpimarratu behar ditugu:

a) EAEko Administrazio publikoan berdintasunaren arloko teknikari gisa jarduteko, ezinbesteko betekizuna da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Espezialitatea izatea."



Manuel Iradier, 36 – Tel.: 945 01 67 00 – Fax: 945 01 67 01 – E-mail: emakunde@euskadi.eus 01005 – Vitoria-Gasteiz

b) Eusko Jaurlaritzako sail guztiek berdintasunerako administrazio-unitate bat dute, bai eta erakunde autonomoek (IVAP, HABE, EUSTAT, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia eta Osalan) eta erakunde publikoek (Lanbide, Osakidetza eta ETS) ere. Gehienak pertsona bakar batek osatzen dituzte ( % 99 emakumeak), lanaldi osoan, 25 III-C mailako lanpostu batean, zerbitzu-zuzendaritzetan, eta 5.000 eta 50.000 euro arteko aurrekontu espezifikoa dute berdintasun-politikak sustatzeko eta koordinatzeko. c) Txostenak agerian uzten du konfigurazio horrekin pertsona bakarreko lanpostuekiko mendekotasun-maila handia dagoela berdintasun-politikak bultzatzeko.

Sailei eta haien gastu-aurrekontu programei dagokienez, EAEko sektore publikoaren aurrekontu bateratua 19.169,7 milioi eurokoa da; horietatik, gastuaren % 23,5 Osakidetzan inbertitzen da, eta % 19 Hezkuntzan eta % 6,2 Lanbiden. Genero-eraginari buruzko txostena egiteko, sailen, haien erakunde autonomoen eta partzuergoen aurrekontu bateratua hartu da oinarri, bai eta Osakidetza, Lanbide, EITB Taldea, URA eta SPRI zuzenbide pribatuko erakunde publikoena eta IHOBE sozietate publikoarena, txosteneko 1. taulan ikus daitekeenez.

Gastua Osakidetzan, Hezkuntzan eta Lanbiden gehiago metatzeak lotura estua du soldata-arrakalarekin, lan-merkatuaren segregazio horizontal eta bertikalarekin, enplegu-baldintzen desberdintasunekin, emakumeen autonomia ekonomikoarekin, osasun-politikek desberdintasunak murriztearekin eta zerbitzu publikoetarako sarbide ekitatiboaren bermean duten garrantziarekin. Baina, genero-eraginari buruzko txostenean aipatzen den bezala, aurrekontuak berdintasunaren arloan duen gaitasun eraldatzailea ez dago soilik eremu horietan garatutako jarduera espezifikoen mende, baizik eta politika publiko guztietan genero-ikuspegia benetan txertatzearen mende ere bai.

Generoaren araberako egokitasunari dagokionez, txostenak nabarmentzen du aztertutako aurrekontuaren % 99,76 generoarekiko egokitzat jo dela; horietatik % 86,5 garrantzi handikotzat, % 10,7 garrantzi ertainekotzat eta gainerako % 2,5 generoarekiko garrantzia txikikotzat. Datu horiek aurreko ekitaldiko datuekin alderatzen baditugu, garrantzi handiak gora egiten du, eta garrantzi ertaineko eta txikiko kategoriek, berriz, behera.

Genero-ikuspegiaren ezarpen-mailari eta ekintza positiboen inplementazioari erreparatuz gero, txosteneko datuek hau adierazten digute:



Manuel Iradier, 36 – Tel.: 945 01 67 00 – Fax: 945 01 67 01 – E-mail: emakunde@euskadi.eus 01005 – Vitoria-Gasteiz

- GENERO-IKUSPEGIAREKIN PLANIFIKATUTAKO JARDUERAK EDO GENERO-IKUSPEGIA KONTUAN HARTUTA DISEINU-PROZESUAN DAUDENAK:

Genero-ikuspegia maila desberdinetan integratuz planifikatutako eta sailek jakinarazitako aurrekontua aztertutakoaren % 10 da, Osakidetza, Lanbide, EITB, URA, SPRI eta IHOBE sozietateen aurrekontua kenduta. Txostenaren arabera, hori horrela da aurrekontuak genero-ikuspegitik aztertzeko egun indarrean dagoen metodologian ez zaielako erakundeei hausnarketa hori egiteko eskatzen. Beharrezkotzat jotzen dute aldez aurretik irizpide teknikoetan eta prestakuntzan sakontzea.

- BERDINTASUNERAKO EKINTZA POSITIBOAK:

Guztira, 14 sailek, erakunde autonomo batek eta zuzenbide publikoko hiru erakunde pribatuk berdintasunerako ekintza positiboak inplementatu dituzte hainbat jardueratan. Ildo horretan, ikusten da berdintasun benetako eta eraginkorra, emakumeen ahalduntzea eta egiturazko desberdintasunak konpontzea sustatzen duten neurriak zeharka ezarri direla. Desberdintasun horiek dira, besteak beste: sektore eta erabaki-postu jakin batzuetan emakumeen lanbide-segregazioa eta ordezkaritza txikia izatea; enplegua lortzeko, mantentzeko eta sustatzeko desberdintasunak; desberdintasunak ezagutza sortzean, karrera akademikoan eta ikerketan; etenak baliabide ekonomikoak, laguntza publikoak eta gobernantza-espazioak lortzean; kalteberatasun sozioekonomiko handiagoa emakume-kolektibo jakin batzuetan eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren egiturazko inpaktua .

Ekintza guzti horiek genero-justiziarekiko konpromiso instituzionala indartzen dute, eta aukera ematen dute berdintasunezko eta indarkeria matxistarik gabeko gizarte baterantz aurrera egiteko.

**Soldata-arrakalaren aurka borrokatzeko** 2027ko aurrekontuetan identifikatukoari dagokionez, emandako datuen arabera, EAEko sektore publikoaren aurrekontu batera tuaren % 1,48 da, eta aztertutako sailen, haien erakunde autonomoen eta partzuergoen aurrekontuaren % 1,88.

Aurrekontu-apustu nagusia (% 90 inguru) zainketen kontziliazio- eta sozializazio-politiketan biltzen da, norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen



Manuel Iradier, 36 – Tel.: 945 01 67 00 – Fax: 945 01 67 01 – E-mail: emakunde@euskadi.eus 01005 – Vitoria-Gasteiz

bidez (133,1 milioi euro), Haurreskolak Partzuergoaren finantzaketaren bidez (95,4 milioi euro) eta 0-3 urte bitarteko haur-eskoletarako laguntzen bidez (14,4 milioi euro). Lanmerkatuan segregazio horizontalari aurre egiteko jarduketak ere biltzen dira, besteak beste, Emakumea Industrian (3,5 milioi euro), Morrokotudak (1,1 milioi euro) eta STEAM eta teknologiaren eremuetan emakumeen parte-hartzea sustatzeko ekimenak.

Era berean, garrantzi berezia hartzen dute emakumeen enpleguaren kalitatea hobetzera bideratutako jarduketek, hala nola nahi gabeko partzialtasuna murrizteko programak (2,35 milioi euro) eta emakumeentzako berariazko pizgarrien bidez ekintzailetzara eta gizarte-ekonomiara bideratutako laguntzek (4 milioi euro). Bestalde, 13 milioi eurotik gorako zuzkidurarekin, prestakuntzari, ikerketari eta bokazio zientifiko-teknologikoen sustapenari lotutako jarduerak bat datoz prestakuntzaren eta hautaketa profesionalaren eremuan identifikatutako beharrekin.

**Indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko** 2027ko aurrekontuetan identifikatutakoari dagokionez, aurrekontu hori hainbat sail eta erakunderen artean banatzen da. Hauek dira aurrekontu-esleipen handiena duten sailak:

- Segurtasuna: guztizkoaren % 41.

- Justizia eta Giza Eskubideak: % 40.

- Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa: % 12.

Horrek erakusten du inbertsio handia egin dela biktimei babesa, justizia eta zuzeneko arreta emateko, baina beste sail eta erakunde publiko batzuk inplikatzen dituen zeharkako estrategia ere erakusten digute.

- Emakundek bultzatutako jarduerek trakzio-lana egiten dute prebentzioaren, gizarte-sentsibilizazioaren, ezagutzaren sorkuntzaren, erakundeen arteko koordinazioaren eta lanbide-trebakuntzaren arloetan. Horien artean, nabarmentzekoak dira Beldur Barik programa, profesionalentzako prestakuntza espezializatua eta indarkeria matxistaren prebentzioan lan egiten duten erakundeentzako dirulaguntzak.
- Era berean, aurrekontuan indarkeria prebenitzeko eta goiz detektatzeko eremu estrategikoetan berariazko jarduerak sartzen dira. Nabarmentzekoak dira hezkuntza-, osasun-, unibertsitate-, kirol- eta etxebizitza-sistemetako ekimenak, bai eta enplegu



Manuel Iradier, 36 – Tel.: 945 01 67 00 – Fax: 945 01 67 01 – E-mail: emakunde@euskadi.eus 01005 – Vitoria-Gasteiz

publikoan eta beste antolaketa-ingurune batzuetan sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentzioa indartzeko neurriak ere.

Hala, emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egiteko jasotako aurrekontu-partidek EAEko sektore publikoaren aurrekontu bateratuaren % 0,18 eta aztertutakoaren % 0,23 egiten dute. Emakumeak indarkeria matxistarik gabe bizi daitezen lortzeko jardueretarako identifikatutako guztizko aurrekontua 34.495.237 eurokoa da.

Bukatzeko, eraginari buruzko txostenak **sail bakoitzerako aurrekontu-programen azterketa xehatua** egiten du.

Eta azkenik, 2027an aurrekontuen inguruan egingo den lanaren esparruan, gomendagarria litzateke, halaber, hausnarketa eta azterketa bat egitea prozesu hori egiten ematen den denborari buruz, arau hau egiteko prozeduraren esparruan egiten den analisia hausnarketa lasaiago eta sakonago batekin egin ahal izateko.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko urriaren 26an



Manuel Iradier, 36 – Tel.: 945 01 67 00 – Fax: 945 01 67 01 – E-mail: emakunde@euskadi.eus 01005 – Vitoria-Gasteiz